


AURREKONTU-BALANTZEEN BILAKETA

SIGEn 308 aurrekontu-balantze sortu dira. Horien bitartez aurrekontuaren exekuzioari buruzko informazioa aurkez liteke, agregazio-maila ezberdinetan, eta exekuzio-fase ezberdinetan.

Balantze horiek bi eratara eskura litezke.

1. **On-line eskuratzea.** SIGEn, aurrekontu-balantzeak bat-batean eskuratu litezke aurrekontu-kontabilitatearen aplikazioan, zerrenden desglosean, *aurrekontu-balantzeak departamentuka* funtzioa eskatuta (CP-LI-15). Balantze horiek, gehienez ere, zenbatekoen bost zutabe jaso ditzakete.



```
Sesión A - [24 x 80]
Archivo  Editar  Transferir  Aspecto  Comunicación  Asistencia  Ventana  Ayuda

01 0084          0021-CONTAB. PRESUPUESTARIA          09-07-2003 11,52
*GPTMLB0*      ** LISTADO BALANCES PRESUPUESTARIOS **      CP -LI - 15

PRESUPUESTO..... -          MES FINAL ...
COD. BALANCE.....
GASTO-INGRESO...  G. GASTO, I. INGRESO, ' '. AMBOS
TIPO PARTIDA....  CT. EJ. CTE.
                  IN. CTOS. INCORPORADOS
                  CI. EJ. CTE. + CTOS. INCORPORADOS
                  CR. EJ. CERRADOS
                  PD. EJ. FUTUROS
                  TC. T. LOCALES. EJ. CTE.
                  TR. T. LOCALES. EJ. CERRADOS
                  TL. T. LOCALES. EJ. CTE. + EJ. CERRADOS

DEPARTAMENTO....
SECCION.....
AÑO PARTIDA....
VINCULACION....  V. CON VINCULANTES, W. VINCULANTES/VINCULADAS
REPRESENTACION..  C. CONT. -ASUME-, T. CONT.+DESCENT.
PORCENTAJE EJEC. S. SI, N. NO -ASUME-
ORDEN PARTIDA... S. PARTIDA+CODIGO C. CODIGO N. PARTIDA
IDIOMA.....      1. IDIOMA1 -ASUME-, 2. IDIOMA2
                  TECLEE DATOS Y PULSE -INTRO-
                              FUNCION

a 04/028
```

2. **Batch prozesu bitartez eskuratzea.** Aurrekontu-balantzea eskuratzeko, SIGEren administrazioa aplikazioan, SIGEren tratamenduak desglosean, *Esplotazioari lanak eskatzea* funtzioan sartu behar da (AD-TR-1). Bertan, 3. aplikazioa (aurrekontu-kontabilitatea: partidak), 20. lana (aurrekontu-balantzeak) eskatu beharko da. Balantze horiek, gehienez ere, zenbatekoen hamahiru zutabe jaso ditzakete.

```

Sesión A - [24 x 80]
Archivo  Editar  Transferir  Aspecto  Comunicación  Asistencia  Ventana  Ayuda

AREA SG                      PETICION DE TRABAJOS                      09/07/03
*GPEMPCI*                    CIHOS                                      12,00
CODIGO APLICACION: 3 CONT. PTARIA.: PARTIDAS
CODIGO TRABAJO...: 20 BALANCES PRESUPUESTARIOS
CODIGO CIHO.....: 1 SPBP COD. PETICION: 058841 00 2003

DESCRIPCION                    CONTENIDO
CODIGO BALANCE .....
PRESUPUESTO .....
GASTO/INGRESO .....          G.GASTO I.INGR. ' '.AMBOS
TIPO PARTIDA .....
DEPARTAMENTO .....
SECCION .....
AÑO PARTIDA .....
VINCULACION .....          V. CON PART. VINCULANTES
FECHA INICIAL (DDMMAAAA)...  W. VINCULANTES/VINCULADAS
FECHA FINAL (DDMMAAAA)...
REPRESENTACION .....      C.CONT-ASUME. T.CONT+DESC
PORCENTAJE EJECUCION ..... S.SI N.NO -ASUME-
ORDEN PARTIDA .....       S.SI N.NO -ASUME-
IDIOMA .....              1.IDIOMA 1 2.IDIOMA 2
MONEDA REPRESENTACION ...  E.EUROS BLANCO.PTAS

*** CIHO INEXISTENTE ***
PF1 - ALTA          PF3 - MODIFICACION          PF5 - CONS. SIG.
AP2 - PANEL ANTERIOR PF2 - CONSULTA             PF12 - MENU PETICIONES

```

Aurrekontu-balantzeetan, informazioa sarrera bikoitzeko taulen moduan ageri da: lerroetan eta zutabeetan

Lerroetan, partidari buruzko informazioa ageri da, eskatutako ikuspegiari (funtzionala, ekonomikoa edota organikoa), agregazio-maila ezberdinetan. Hala, honakoaren artean aukera liteke:

- E1 Balantzeak kapituluaren arabera
- E2 Balantzeak artikuluen arabera
- E3 Balantzeak kontzeptuen arabera
- E5 Balantzeak azpikontzeptuen arabera
- F3 Balantzeak funtzio-programaren arabera
- O2 Balantzeak departamentuen arabera
- O4 Balantzeak atalen arabera
- P2 Balantzeak programaren arabera
- P3 Balantzeak subprogramaren arabera
- PA Balantzeak partiden arabera

Lerroetako informazio hau, subtatalen kalkuluak egiteko, haustura-maila ezberdinen arabera aurkezten da. Hala, **haustura-maila** hauen artean aukera liteke:

GI	Partida-mota
O2	Departamentua
O3	Zuzendaritza
O4	Atala
E1	Kapitulua
E2	Artikulua
E3	Kontzeptu ekonomikoa
E5	Azpikontzeptu ekonomikoa
P2	Programa
P3	Subprograma
F1	Funtzio-taldea
F2	Funtzioa
F3	Funtzio-programa
F5	Funtzio-subprograma
AA	Partidaren urtea
PA	Partida

Zutabeetan, aurrekontu-exekuzioaren faseen informazioa jasotzen da, edota bestela, exekuzio-saldoena (faseen arteko diferentziena). Aurrekontu-balantze bakoitzak gehienez ere 13 zutabe jasotzen ditu, inporteenak. Horregatik formato ezberdinak sortu dira, exekuzioaren fase edota saldo ezberdinak konbinatuz, gehienez ere 13 zutabe osatu arte.

Erabilgarri dauden 308 aurrekontu-balantzeak aurkezpen-era ezberdinak konbinatzearen ondorio dira, lerro, zutabe eta haustura-mailei dagokienean.

Aurrekontu-balantzeek kode alfanumeriko bana daramate, lau digitukoa. Hori da, hain zuzen ere, parametro gisara sartu beharko dena inprimatzeko eskaera egiten denean.

UDALGIDA web orrialdean jaso dira 308 aurrekontu-balantze horiek, zerrendan, bi irizpideren arabera sailkatuta:

- Aurrekontu-balantzeak partiden agregazio-mailaren arabera (lerroetako informazioa).
- Aurrekontu-balantzeak zutabeen formatoaren arabera (exekuzioaren fase edota saldo ezberdinen arteko konbinazioak).

AURREKONTU-BALANTZEEN BILAKETA-ADIBIDEA


Eman dezagun aurrekontu-balantze bat inprimatu nahi dugula, honako informazioa jasoko duena:

- Lerroetan: departamentuak (sailkapen organikoaren 2 digitu).
- Zutabeetan: urteko aurrekontuko gastuen exekuzioko A, D, O eta P faseak.
- Hausturak: subttotalak kalkulatu nahi dira partida-mota eta partidaren urtea aldatzen diren bakoitzean.


1. bilaketa: aurrekontu-balantzeak, partiden agregazio-mailaren arabera.

Estekaren bitartez Adobe Reader dokumentu bat irekiko da, PDF luzapena duena. Honako urratsak jarraituko dira:


- a) Dokumentu horren lehenengo orrian, klik egin behar da *O2 Balantzeak departamentuen arabera* testuan.



Estekak PDF dokumentuaren 10. orrira eramango gaitu zuzenean. Bertan daude ikusgai departamentuen araberako aurrekontu-balantze guztiak, zutabe-formato ezberdinen arabera antolatuta, bakoitzaren haustura-maila eta guzti.



- b) Gerta liteke ez jakitea zein den A, D, O eta P faseak jasotzen dituen zutabe-formatoa, adibide honetan nahi dugun bezala. Horrelakoetan, formator formato, banaka-banaka, egin beharko da bilaketa, guk nahi duguna topatu arte. Horretarako, lehenengoarekin hasi beharko da, *F01 formatoa* testuan klik eginez. Estekak PDF dokumentuaren 18. orrira eramango gaitu zuzenean, eta bertan ikusiko dugu zein diren formato bakoitzak biltzen dituen zutabeak, partida-mota bakoitzeko.



- c) Adibide honetan, F01 formatoak jasotzen ditu guk nahi genituen zutabeak (baita behin-betiko aurrekontuarena ere). Beraz, ez da beharrezkoa izango bilaketarekin jarraitzea. Hala izan ez balitz, gainerako formatoroen edukia aztertzen jarraitu beharko zen.

Nahi genuen formatua aurkitu dugunez, aurreko pantailara itzuliko gara. Bertan jakingo dugu badirela departamentuen arabera bi balantze, F01 formatoa dutenak zutabeetan: 308A eta 308 kodekoak. Adibidean, guk behar dugun balantzea 308 kodekoa da, hausturak partida-motaren eta partidaren urtearen arabera egiten baititu (308A balantzeak ez du urtearen arabera hausturarik egiten).

2. bilaketa: aurrekontu-balantzeak, zutabeen formatoroen arabera.

Estekaren bitartez Adobe Reader dokumentu bat irekiko da, PDF luzapena duena. Honako urratsak jarraituko dira:

- a) Dokumentu horren lehen bi orrietan jasotzen dira, zerrendan, erabilgarri dauden zutabe-formato guztiak. Bertan ageri da, baita ere, ohikoena diren zortzi exekuzio-faseak jasotzen dituzten edo ez. Honakoak dira fase eta saldo horiek:


- Hasierako aurrekontua
- Behin-betiko aurrekontua

- Kreditu baimenduak (A fasea)
- Kreditu erabiliak (D fasea)
- Obligazio onartuak (O fasea)
- Ordainketa likidoak (P fasea)
- Kredituen saldoa (behin-betiko kredituen eta kreditu baimenduen arteko diferentzia)
- Obligazioen saldoa (obligazio onartuen eta ordainketa likidoen arteko diferentzia).


Lerroek eta zutabeek bat egiten duten lekuan zenbaki bat ageri da, formato bakoitzean, exekuzio-fase bakoitzaren informazioa jasotzen duen balantze kopurua adierazten duena. Hala, adibidean, ikusten da F01 balantzeak jaso egiten duela, besteak beste, A, D, O eta P faseei buruzko informazioa. Zehazki, 61 aurrekontu-balantze daude F01 formatoa dutenak eta fase horiek jasotzen dituztenak.

FASE HAU JASOTZEN DUTEN BALANTZE-KOPURUA								
FORMATO	HAS. AURREK.	B.BETIKO AURREK.	A BAIMEN.	D ERAK.	O OBONAR.	P ORDAIN.	AURR-A ERABILG.	O-P ORD.GABE
F01	61	61	61	61	61	61		
F02	11						11	11
F03	2		2					
F04	8					8	8	8
F05	1	1						
F06	18				18	18		18
F07	4	4				4		
F08	10				10	10		10
F09	30	30	30	30	30	30		
F10	7	7			7	7		7
F11	24	24						
F12	13	13			13	13		13
F13	9	9	9	9	9	9		
F14	6	6	6	6	6	6		
F15								
F16	6	6						
F17								
F18								
F19	4	4	4	4	4			
F20	4	4						

- b) F01 testuan klik eginda, dokumentuaren 3. orrira joango gara zuzenean, eta bertan formato horren edukiari buruzko informazio gehiago ikusiko dugu.



c) F01 formatoa testuan klik eginda, dokumentuaren 14. orrira joango gara zuzenean, eta bertan formato hori duten aurrekontu-balantze guztiak ikusiko ditugu, partiden agregazio-mailaren arabera ordenatuta.



d) Pantaila honetan, *Balantzeak departamentuen arabera* atalera joango gara zuzenean. Bertan ikusiko dugu badirela bi balantze ezaugarri horiek dituztenak: 308A eta 308 kodekoak. Bi balantze horien arteko aldea haustura-mailan dago. Gure adibidean 308 kodeko balantzeak aseko ditu gure premiak.